

artikulu nabarmenak artículos destacados



urria/octubre



BALLESTEROS, Carlos. [El esculismo como escuela de compromiso](#). Padres y maestros. Madrid: Universidad Pontificia Comillas, septiembre 2017, (31). 32-37. ISSN 0210-4679 Eskautismoa XX. mendearen hasieran sortu zen garapen fisiko eta espiritualerako bitarteko moduan, biziera militarra eta aire zabala oinarri zituela, eta egun, gainera, gizarte baketsu eta zuzena lortu nahi du. Aitzindaria da munduan gazteen hezkuntza-mugimenduan, eta 40 milioi kide baino gehiago ditu jardunean. Leialtasuna, obediencia, ekimena eta errespetua dira eskaut-hezkuntzaren balioak. Metodoa progresiboa eta aktiboa da: inguruko errealitateaz jabetzen laguntzen die 8 eta 12 urte bitarteko neskatu-mutikoei, koskorrei eta kaskondoei; espiritu kritikoa garatzen, 13 eta 17 urte arteko oinarinei eta azkarrei; eta eraldatzen saiatzen, 17 eta 20 bitarte dituztenei. Heztea da helburuetako bat, pertsona eta haren errealitatea eraldatzeko; askatasuna, parte-hartzea eta elkartasuna oinarri hartuta hezten du; eta ez dago ezein alderdi politikoren zerbitzura. Pertsonak, errealitate globala eta ingurunean dituzten arazoaren errealitate berezia aztertu ondoren, konpromiso sakonean oinarrituta jokatzeko prestatzen ditu. Gizarte plural eta irekia, solidarioa, parte-hartzailea, dinamikoa, hitz egiteko irekia, sortzailea lortu nahi du

CEREZO, Pepe. [La generación Z y la información](#). Revista de Estudios de Juventud. Madrid: Injuve, 2017 (114), 95-109. ISSN 0211-4364

Gaur egun zaila da belaunaldi hitz egitea, gizartearen eboluzioa oso azkarra delako. Hala ere, Z, iGen, streaming belaunaldia, eraikitzen ari den belaunaldia, 1995etik aurrera jaiotako gazteena dela ulertzen da. Millennials direlako ez bezala erreparatzen diote inguruneari, eta bestelako ikuspegiak dute etorkizunaz, lanarekiko harremanaz. Balio handiagoa ematen diote esperientzia bat izateari produktu bat edukitzeari baino; ongien prestatutako belaunaldia da, baina daukaten talentua alferrik galtzen da; plataforma sozialak erabiltzea dute ezaugarri; eta munduari buruzko ikuspegi globala dute, teknologiak gehiago moldatua, arrazak edo hizkuntzak baino. Berezko trebetasun digitalik izan gabe ere, ikuspegi eta harreman berezia dute teknologiari dagokionez. Arreta-ahalmena murriztu zaie, inguruneari aurre egiteko beste gaitasun batzuk garatzeko. Kezka handiagoa dute linean egindako transakzioengatik aplikazioak edo sare sozialak erabiltzen dituztenean baino. Sakelakoaren bidez dute harremana mundu digitalarekin. Denbora gehiago ematen dute streaming bidezko lineako bideo- eta audio-zerbitzuekin telebistarekin eta irratiarekin baino. Iritzi txarra dute komunikabideei buruz. Aurrez aurreko komunikazioa alde batera uzten dute, lagunekin sare sozialetan sentitzen duten ongizatearen aurrean. Arrastorik uzten ez duten mezularitza-aplikazioak eta berehalako plataforma personalak dituzte gogoko. Informazioa sortzen, aldatzen eta eraldatzen dute, informazioaren iraganean iragazkiak zeudela jakin gabe; komunikatzaile bisual onak dira; konektatuta daude, baina ez daude ezinbestean hobeto informatuta. Jasotako informazioa RSS bidez iristen zaie, desagituratuta eta zatituta, algoritmoekin kudeatutako plataformetatik. Komunikabideak ere sortzen dituzte. Ez daude prest informazioagatik ordaintzeko, entretenezko ez bada. Etorkizunean, errealitate areagotua eragin handiko faktorea izango da kolektibo honetan.



PARÉS, Marc y Joan SUBIRATS. [Muy jóvenes, jóvenes y menos jóvenes. El lio de la juventud y la política](#). Revista de Estudios de Juventud. Madrid: INJUVE, 2017 (14), p.45-57. ISSN 0211-4364 .

Gaztaroa gero eta luzeagoa da. Orain arte politikaren ikuspegi makiavelikoa nagusitu bada (botere-borroka), orain, aldaketen eta krisiaren ondorioz, baliteke aristotelikoa nagusitzea (lankidetzeta). Badirudi Z belaunaldia altruista dela, politikari buruz pentsatzen duela eguneroko jardura bat dela, estatutik eta hauteskundeetatik kanpo gauzatu daitekeena, arazo kolektiboak batera konbentzionalak ez diren bideak erabiliz. Krisiaren aurreko gazteek protesta eta abstentzioa erabiltzen zituzten. Z belaunaldiak, berriz, parte-hartze ez-instituzionala egiten du, kontu zehatzei lotua. Askotariko esanahiak ematen dizkiote politikari: ez bakarrik botoa ematea edo hauteskunde-kanpainetan esku hartzea; parte hartzeko beste modu batzuk asmatu dituzte, elkarlanean, lankidetzan oinarrituta. Parte-hartze berria internet erlaziozatzeko eta eraldatzeko bitarteko moduan erabiliz gauzatzen da. Sarearen bidezko parte-hartzeari esker, jardura politikoa suspertu egiten da, baina ez du ekarriko parte hartzeko bide berrietara aldatzea: alderdien eta administrazioen orriek helduen bisita gehiago izaten dituzte; gazteek, berriz, gehiago jotzen dute lineatik kanpo presentzia ez duten baina beste gazte batzuek sortu dituzten guneetara

